

PRENTSA OHARRA

Urretxu-Bilbo-Iruñea-Baigorri 2023/XI/22

---

**Igandean Urretxun bilduko gara “Gernikako Arbola” euskaldunen ereserkia izan dedila eskatzen.**

Datorren igandean, azaroaren 26an, ospatuko da “Gernikako Arbola euskal ereserkia 1. Batzarra”, Iparragirren sorterrian Urretxun, kantuaren 170. urteurrenean.

Bertara, seirehun pertsona baino gehiago hurbiltzea espero da Euskal Herria/Baskonia osotik. Dagoeneko 12 kantu taldeetako partaideak eta koralek eman dute izena, baita ere zenbait alkate, zinegotzi eta eragile sozialek ere.

Musikariek hasi zuten “Gernikako Arbola, euskal ereserkia” ekimen kulturala, orain hiru urte Iruñean eginiko agerraldiarekin. Ordutik beste zortzi kolektibok eman diote bultzada: idazleak, historialariak, iparraldeko kultur eragileak, Nabarraldeko editoreak, ezker abertzaleko zenbaitek, karlistak eta euskal diasporak, guzti hauek bere [adierazpenak](#) egin dituzte urte hauetan.

Igandean, hamaikak aldera hasiko da Pagoeta gunea betetzen eta bertan ospatuko den ekitaldian kantatuko dira euskal kulturaren errotuta dauden zenbait kantu eta baita ere “Eusko Abendaren Ereserkia” Euskadiko ereserkia dena eta “Gorteetako himnoa” Nafarroa Garaikoa dena.

Irakurriko da ere “[Urretxuko Adierazpena](#)” egun horretarako gertatua eta, ondoren, ozenki eta gozotasunez, kantatuko dugu guziok batzen gaituen “Gernikako Arbola”. Guztia dantza, bertso eta historia laburpenarekin lagunduz.

Ondoren, musikari, dantzari eta erraldoien laguntzarekin Iparragirre plazara hurbilduko gara eta bertan bardoaren estatua aurrean agurra egingo diogu, berriro ere Urretxuko manifestua irakurri eta Gernikako Arbola kantatuko dugu. Gero, bazkari herrikoia, izango da apuntatuta daudenentzako.

Ekimena zenbait elkartek antolatu dute *Gernikako Arbola kantuz* (Iruñea), *Kantuzale Elkarte*a (Bilbo) eta *Basaizea* (Baigorri), Urretxuko udaletxearen eta beste elkarte batzuen laguntzaz. Bere xedea “Gernikako Arbola” abestiaren lehen estrofa, “Gora Euskalerria eta euskaldunak, gora” gehituz, [hemen letra eta partitura](#), euskal ereserkia izan dadila bultzatzea da, Euskal Herria/ Baskonia barruan dauden eremu administratiboen ereserkiak errespetatuz.

Iparragirrek lehen aldiz Bilbon 1853. urtean kantatu zuenetik 170 urte igaro dira eta oraindik bizirik irauten du kantuak euskal imajinarioan. Urte horietan pasatu diren belaunaldi guztiak kantatu dute, ideologia orok bere egin duen moduan. Gainera epika du, kantatzea gatik heriotzak eta atxilotuak egon izan ziren, lehen gerra mundialean aritu ziren iparraldeko soldaduak kantatu zuten, gaur euskal abesbatza guztiak dute bere errepertorioan eta badaude rock taldeak ere bere kontzertuetan jartzen dutenak, [hemen zenbait bertsi](#)o.

[Web orrialde honetan](#) arkitu ahal da programa osoa, [prentsa dossierra](#) eta beste zenbait informazio osagarri ekimenaren inguruan [www.gernikako-arbola.eus](http://www.gernikako-arbola.eus)

---

Kontaktua. Juanlu Aranburu. Tel 669546357

[info@gernikako-arbola.eus](mailto:info@gernikako-arbola.eus)

Gontzal Mendibil. Tel 609471231

---